

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1895

225/2012 EBAZPENA, martxoaren 15ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Bidasoako Erakunde Sanitario Integratuko Arlo Medikoko Asistentzia Koordinatzeko zuzendariaren lanpostua betetzeko deialdi publikoa egiteko dena.

Bidasoako Erakunde Sanitario Integratuko Arlo Medikoko Asistentzia Koordinatzeko zuzendariaren lanpostua hutsik dago. Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikulua, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2010eko abenduaren 13ko Erabakia, eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua betez, Zuzendaritza Nagusi honek lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa egitea erabaki du. Hona hemen horretarako

OINARRIAK

Lehenengoa.– Bidasoako Erakunde Sanitario Integratuko Arlo Medikoko Asistentzia Koordinatzeko zuzendariaren lanpostua, ebazpen honen bitartez egindako deialdian sartzen dena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeei atxikitako langile finkoek (funtzionario, estatutupeko edo lan-kontratukoek) eska dezakete, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko funtzionarioek eta horko erakunde autonomoetako funtzionarioek ere. Honako eskakizun hauek bete behar dituzte:

- 1.– Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna izatea.
- 2.– Administrazio- eta kudeaketa-lanetan esperientzia izan beharko dute.

Bigarrena.– Interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Erakunde Zentraleko Giza Baliabideetako Zuzendaritzan aurkeztu beharko dituzte eskabideak, 10 egun balioduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera. Horretaz gain, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako eran ere aurkez ditzakete eskabideok.

Hirugarrena.– Deialdi honetan parte hartu nahi duten izangaiek, eskabidearekin batera, curriculum vitae-a aurkeztu beharko dute, honako hauek adieraziz:

- Titulu akademikoak.
- Orain arte betetako lanpostuak.
- Lanbidean eta kudeaketa sanitarioan duten eskarmentua.
- Ikasketak, ikastaroak, ponentziak, argitalpenak, hizkuntzak eta egoki irizitako beste edozein merezimendu.

2012ko apirilaren 26a, osteguna

Eskatzen diren betekizunen eta aurkeztutako merezimenduen egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte izangaiek, eskabidearekin batera. Halaber, argitalpenak, txostenak edota egoki iritzitako beste edozein agiri ere aurkez dezakete.

Laugarrena.– Deialdi hau Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren Ebazpen baten bidez ebatziko da. Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko martxoaren 15a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.